

Goierri tarra

291. zenbakia

2005eko azaroak 18

Artzainak elkarturik
ARKUMEA
merkaturatzea ziurtatzeko

faktore
KOMUNIKAZIO
GRAFIKOA

Oriamendi, 37 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T 943 088 169
faktore@faktore.net
www.faktore.net

SORMENA / IRUDIGINTZA / DISEINUA



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Iñaki Apalategi

Lan istripuak

Euskal Herrian aurten datuek
esaten duten bezela
berrogei ta bost hil dira jada
hori bai marka itzela!
mundu hontatik joan zaizkigu
lanean ari zirela
nahiz langileen ipuinek duten
hain amaiera krudela
enpresariak lasai diote
lana osasuna dela

Ekuatoriar langile soil bat
andamio gainean dabil
sokarik gabe derrigorturik
hara igotzera umil
haize bolada batek bultzata
edonoiz liteke amil
erori da ta behean zegoen
nagusiak dirau trankil
batzuek ondo bizi daitezen
ez dago zertan inor hil

Goierri tarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Siadeco

5. Ingurugiro txokoa: Lorebakar
eztiak

7. Errezeta: Itsas-lur espagetiak
Aholkua: Dietarik egokiena

8. Kate motzean: Garazi eta Beñat
Hach Embarek Irizar

9. Elkarrizketa: Garsabi Gipuzkoako
arkume salementa eta bilketa

13. Elkarrizketa: Asmubek 15 urte


16. Erreportajea: Landare-hesiak

20. Erreportajea: Jostailuak nola
aukeratu

22. Mundutarrak Goierriin: Euskara
ikastaroak etorkinentzat

24. Debaldeko iragarkiak

26. Fotozaharra.



Goierritarra Goierri kanpo jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Itsasondo,
Ormaiztegi eta Zaldibiako udalak



Ordiziako Plan Estrategikoa: 21. mendeko periapolis

Zer da Ordiziako Plan Estrategikoa?

Gaur, Ordiziako Plan Estrategikoaz ari garenean, zertaz ari gara? Herri-diagnostikorako eta plangintzarako bideratzen den prozesu jarraituaz hitz egiten ari al gara? Ordiziako etorkizuneko garapenean inplikatu nahi duten pertsona eta eragile publiko nahiz pribatu guztien elkargunea definitzeaz ari al gara? Herriarentzat nahiz eskualdearentzat garrantzia handia izango duen motor sozio-ekonomikoa diseinatzeari ari al gara? Gizarte-gerentzia aurrera eramateko modu berri batetaz ari al gara? Alor sozio-ekonomikoan parte hartzeko aukera ematen duen tresnaz ari al gara? Plan Estrategikoaz ari garenean, agian, guzti hortaz ari gara; baina baita Plana garatu eta bizitzen joan ahala, sortu eta aurreikusi ezin daitekeen eta oso garrantzitsua den beste zerbaitetaz ere.

Zeintzuk izan dira bere unerik garrantzitsuenak?

Ordiziako Plan Estrategikoaren historia 2003. urtean abiatzen da, Udalak, SIADECO kontratatu zuenean Plana egiteko.

Hilabete batzuetan gogor baina ilusioz lan egin ondoren, urte hartako uztailaren amaierarako, Plan Estrategikoaren diagnostiko eta plangintza faseei zegozkien txostenen erredakzioa amaitu zen eta Udalak egindako eskaerari erantzun. Emaizta, Ordiziak dituen beharrak eta datozen urteetan izango dituen erronkak diagnostikatzen zituen ikerketa zabal eta sakona izan zen.

Era honetara:

- ✓ Diagnostikoaren hasierako fasean, herriko errealitatea modu sektorial nahiz orokorrean aztertu zen, etorkizunean bere garapena baldintzatuko duten faktore eragileak antzeman ziren, eta plangintzaren horizonte gisa, "eszenatoki-gida" bat planteatu zen.
- ✓ Plangintzaren hasierako fasean, sei jarduera esparru planteatu ziren, eta horietako bakoitzari zegozkion helburuak, eta helburuak lortzeko ekintzak proposatu ziren.

Udalak, 2003ko abuztua eta abendua bitartean, entregatutako dokumentazioa aztertu eta baloratu zuen, eta

2004ko urtarrila eta otsailean zehar, Planaren Erakusketa eta Komunikazio Publikoa egin zen. Horren ondotik, Ordiziako Udalak, Plana osatzeko interesa azaldu zuen, berau komunikatzeko, eta martxan jarri beharreko jarduerak aukeratu eta egokitzera zuzendutako proiektu intentsibo baten bidez. Horrela proposatu zion SIADECOri, eta honek 2004. urtean, komunikazio-, jarraipen- eta ebaluazio-estrategien diseinuan eta aplikazioan oinarritzen den, gizarte-eragileak dinamizatzeko sistema jarri zuen martxan.

Une horretatik, eta proiektu hori amaitu zen arte, (2005. urteko irailean), hainbat bilera orokor, lan-talde sektorial desberdinak antolatu, eta prozesua ebaluatzeko hainbat harreman pertsonalizatu garatu ziren. Honela, 60 pertsona inguru izan dira, era batera ala bestera, prozesu honetan parte hartu dutenak.

Zein momentutan aurkitzen gara?

Gizarte eragileekin garatutako prozesu honetan, helburuak definitu eta zehaztu ziren, gizarte alorrak bildu eta Plan Estrategikoarentzat oinarritzkoa edo nuklearra den funtzioa identifikatzeko beharra nagusitu zen arte. Funtzio honek bi baldintzok bete beharko lituzke:

- XXI. mendearen hasieran, udalerriko nahiz Goierriko alor sozio-ekonomikoa dinamizatzeko duen "motorra" izan behar du, eta aldi berean,
- iraganean Ordizia identifikatu eta definitu duen idiosinkrasia mantendu eta gorde behar du.

Prozesu hau amaituta, pozik adieraz dezakegu orain arteko helburua lortu dela eta proiektu berritzaile zehaztu baten aurrean gaudela. Proiektu honen bideragarritasun ekonomikoa ere sakon aztertuta dago.

Guzti hau nekez lortuko zen, Ordiziako etorkizuneko garapenarengatik, pertsonalki edota profesionalki motibatuta, Plan Estrategikoaren abentura parte hartzaile horretan inplikatzera erabaki zuten pertsona guztien laguntza eta partaidetzarik gabe.

Victor Hugo-k esan bezala, "bada munduko ejertzito guztiak baino indar gehiago duen zerbait: bere momentua iritsi zaion ideia". Proiektu hau, bere momentua iritsi zaion ideia horietako bat da.

Gure zalantza orain zera da, ideia hau jaiotzen ikusi duen herriak, lehenbailehen berea egin eta gauzatuko ote duen ala, horrela ez bada, ideia horren potentzial sozio-ekonomiko handiaz jabetu delako gure inguruko beste norbaitek egingo ote duen.

Edozein kontsulta egiteko, hona zuzendu zaitezke: telefonoz, 943 31 00 34 edo e-postaz siadeco@siadeco.net.

SIADECO

**60 pertsona inguru izan dira, era
batera ala bestera, prozesu
honetan parte hartu dutenak.**



kutxa

gizarte ekintza

Ezti lorebakar lehiaketa

"Laister dugu iraileko ilbera, gure erleei ezta kentzeko tenorea iritsi da. Eguraldi ona egingo balu..."

Uzta denbora iristean pentsatzeko eta jarduteko modu hau zen eta da nagusi erlezainon artean.

Gehienetan ezta urtean behin kentzen diogu erleari, udara amaieran, San Migueletan. Honetarako ilargiaren zikloa ere kontutan hartzen dute batzuk.

Sasoi bukaeran kendutako ezta mota desberdinetako landareena izaten da, uzta guztiko ezta desberdinak baitaude nahastuta: denboraldiaren hasierakoak (sahatsa, txikori belarra, geziondoa, elorri zuria, elorri beltza... zuhaitz eta landare hauen nektar eta lorautsei esker erlea indartu egiten da, beren populazioa ugalduz), udaberri-udarakoak (akazia, larra, gaztainondoa, ezkia, zelaietako loreak, frutondoak eta udarra bukaeran txilarrak. Erleek ezirik gehiena sasoi honetan egiten dute, orduan ematen baitira baldintza egokienak: erlea indarrean, eguraldi ona, nektar eta polen ugari...) eta udazkeneak (aro honetako zuhaitz eta landareek ematen duten nektarra negurako erretsebak egiteko erabiltzen dute).

Ezta uda bukaeran kenduagatik, gehiena udaberrian egin izaten da, maiatza-ekainan eta nahiz eta ezta hauen zatirik handiena 2 edo 3 landareena izan, loreanitz edo milalore bezala izendatzen da, ez baita landare konkretu baten ezta nabarmentzen besteen gainetik. Orokorrean ezta



ilunak izaten dira eta denei loreanitzak deitu arren bilerategietako loreanitzak desberdinak izaten dira usain, kolore zein zaporen.

Erlazantzak aurrerapau-soak eman eta erleen biología eta bizitza zikloa hobeto ezagutu ahala hauek gobernatzeko erak ere aldatu egin dira. Honela, jakinik erleek ezta loraldia dagoen bitartean egiten dutela, hau bukatu ordurako biltzeko moduan dago gaur egungo erlezaina, heltzeko 10 bat egun uztea nahikoak baitituen.

Adibidez, akaziaren loraldia amaitu eta aste batera edo kendu ezker ezta, hau **akazia ezta** izango litzateke, lorebakarra, garai berean dauden loreek ez baitiote eskaintzen erleari akaziak ematen dien nektar kalitate eta kantitatea.

Honela erleek egiten duten ezirik preziatuenetako dastatzeko aukera izango dugu, kolore argi zurizta, usain arin eta zapore gozo delikatua duen akaziarena. Ezirik suabeena da eta urteetan gogortu gabe irauten duen bakarrenetakoa.

Euskal herrian lekuaren arabera lorebakarreko ezta desberdinak egin daitezke: eukalipto, eromeroa, akazia, ezkaia, gaztainondoa, izpilikua, txilarra...

Lekuan lekuko landare-

tzari dagokion ezta motak dira hauek, alegia, Nafarroan eukalipto ezta egiterik ez dago, Gipuzkoan eromeroarena egiterik ez dagoen arrazoi beragatik, landare hauek ez daudelako leku horietan.

Gaztainondo ezta kolore gorritza ilunekoa da, usain sarkorrekoa. Dastatzekoan hasieran zapore gozoa du, baina irenstekoan mikaztasuna nagusitzen da. Mikaztasun hau da ezta honen ezaugarriarik nabarmenena, ezta guztiak ez direla gozoak agertuz.

Txilar eztiak kolore marroixka du, humus usaina eta zapore berezia, indartsua, gazi ukituekin. Gustu iraunkor eta sarkorra duen ezta da hau.

Azaroaren 19an

G.E.E.k erlezainen artean eta gizartearen oro har ezta lorebakarren berri zabaltzea helburu harturik Gipuzkoako Ezti Lorebakarren 1. lehiaketa antolatu du Ordizian, azaroaren 19an. Gipuzkoako baldintzak kontutan harturik (landaretza, eguraldia, erlezaina...) hiru ezta lorebakar mota desberdinen lehiaketa antolatu du: akazia ezta, gaztainondo ezta eta txilar ezta. Klase bakoitzean irabazle bat aukeratu da.

Hiru ezta mota horiek dastatzeko aukera izango duzu Ordizira etortzen bazara. Aholku bat nahi baduzu probatu ezazu lehenengo akazia ezta, suabeena baita, ondoren txilarra eta azkenik gaztainarena, honen mikaztasunak ez ditzan aurrekoen zaporeak estali. On egin!

JAKIN BEHARREKOAK

Espainiako Ingurumen Sari Nazionalak 2005: "Naturaren Kontserbazio" Saria Mario Gabiria nafarrarentzat. Soziologo hau ekologismoaren aitzindaria izan zen Estatu espainiarrean. Natur baliabideen alde egindako ekarpenengatik zein pentsamendu ekologikoaren zabalkundean egindako lanarengatik jaso du saria. **"Ekonomia eta Ingurumena" Saria Mari Carmen Gallastegi gipuzkoarrarentzat.** Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontseilaria izan da eta gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia katedraduna da Mari Carmen. Natur baliabideen kudeaketa ekonomikoari buruzko ikerketa ugari ere burutu ditu.

2030. urtean planetan gaur egun dabilzan automobil bikoitza izango da. Garatutako eremuetan automobilaren erosketak izandako gorakadak zein Txina bezalako herrietan izango den "boom" a, munduko automobil parkearen igoera ekarriko dute eta horrekin batera ingurumen inpaktu oso larriak.

LIBURUA

"La Tierra herida. ¿Qué mundo heredarán nuestros hijos?" Miguel Delibes eta Miguel Delibes de Castro, Destino, 2005. Delibes idazle ezauna eta Naturaren defendatzailea sutuak, eta bere semea eta urteetan Doñanako Biologi Estazioko zuzendaria izan denak, planetako arazo garrantzitsuenetaz izandako elkarriketak biltzen dira liburua honetan.

Turismo iraunkorra

"Turismo iraunkorrak gaur egungo turistaren eta lurralde hartzaileen beharrei erantzuten die, eta era berean etorkizunerako aukerak zaindu eta bermatzen ditu. Lurralde horien behar ekonomiko, sozial eta estetikoak zainduko dituen errekurtso guztien kudeaketa bide bezala uler daiteke, aldi berean, kultura integritatea, oinarritzko prozesu ekologikoak, biodibertsitatea eta bizitza eusten duten sistematik errespetatzen dituenak" Gaur egun, mundu osoan hedaturiko fenomeno izateaz gain, ekonomian gehien hazi den eta hazten ari den sektoreetako bat da turismoa.

Turismoak dituen ondorioak bi era desberdinetan uler daitezke. Alderdi onuragarritik begira, herrialde askotxoren garapen sozioekonomikoan eginkizun garrantzitsua du, kulturen trukearen faktore lagungarria da eta herrien arteko bakea eta harremanak sustatzen ditu.

Gaur egun sektoreak hartu duen definizio berriak (ekoturismoa, turismo berdea,...), ingurugiro-alorrean sustraiak izanik, bidaiak egin eta gune naturalak bisitatzera animatzen gaitu, tokian tokiko alderdi erakargarriak (paisajea eta ba-

sa fauna eta flora) eta gaitzaren ondorioz eragin ekologikoa jasaten duten eskualdeen eta parke naturalen zaintza finantzatzen laguntzeko balio dute. Horrez gain, kanpoko bisitariaren inguru-heziketa ez ezik, bertako biztanleriarena ere aberasteko lagungarri gerta daiteke horrelako turismoa.

Naturaren baitako eragina

Ingurugiroa babestea dela eta, turismoak berebiziko garrantzia izan dezakeela nabarmentzen ari da. "Ekoturismo" berri honetatik lortzen diren diru-sarrerek, ematen diren erabilera kal-

tegarrien ondorioz eragin ekologikoa jasaten duten eskualdeen eta parke naturalen zaintza finantzatzen laguntzeko balio dute. Horrez gain, kanpoko bisitariaren inguru-heziketa ez ezik, bertako biztanleriarena ere aberasteko lagungarri gerta daiteke horrelako turismoa.

Hori dela eta, 1995ean Turismo Iraunkorrari buruzko Mundu Biltzarra egin zen Lanzaroten, eta biltzar



horretan adierazi zen turismoa garapen tresna indartsua dela eta, Garapen Iraunkorra lortzeko mundu mailako estrategian parte hartu behar duela.

Turismo justu eta arduratsu baterako:

- Jaso informazioa egin beharreko ibilbideaz. Irakurri bisitatu nahi dituzun herrialde eta eskualdeei buruzko gida eta liburuak, behar bezala prestatutako oporraldiak aberasgarriak izango zaizkizu eta.
- Ez kendu ezer naturari; saia zaitez ingurunea hobetzen.
- Egizu uko, ahal den neurrian, garraio-bide kontaminatzaileei. Hobe duzu paisajearen zoragarriaz gozatzear gain, gorputza zailtzea ahalbideratuko dizun abiaduran ibiltzea. Naturarengana gerturatu eta beraz onura ateratzeko horberena bizikletazko edo oinezko txangoak dira.
- Lagundu ezazu lekuan lekuko fauna eta flora zaintzen eta eskualde landatarrak mantentzen.
- Zuk sortzen dituzun zaborrak zerorrek jaso beharko dituzu.
- Kanpin egiten baduzu, euri-urak dendan sar ez daitezen, aski izango duzu eroritako enborrekin edo lur-piloekin



eragozpenak ezarrita (zanga egiteak lurra desegin egiten baitu).

- Sukaldeko tresneria eta arropa ikuzteko garbikari ekologikoak (errautsa edota hondarra, alegia) erabili beharko lirateke, limoia eta ozpina deskoizpeztatzaile gisa baliatuz.
- Ez egin zuzeneko erasorik naturari: ez josi iltzeak arboletan, ez moztu adarrak, ez eragotzi ubiderik, ez txikitu habiak. Paisajeak, florak eta faunak lehenago zeuden bezala iraun behar dute guk alde egindakoan ere.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



Iker Markinez
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

Osagaiak

(4 lagunentzat):

- 400 gr espageti
- Onddo mardul bat
- Espinaka sorta txiki bat
- 150 gr langostino zuritu
- Rape txiki bat (500 gr)
- Olia
- Gatza
- Esnegaina (250 ml)

Lehenik, kazuela batean, ura gatz puska batekin irakiten jarri, espagetiak gehitu eta hamar minutuz egon ondoren, hoztu eta xukatu.

Ondoren, kazuela zabal batetan olio pixka bat berotzen ipini eta rape pusketa garbiak frijitzen jarri. Segi-

dan onddoa fin laminatu eta rapeari gehituko diogu. 3 minutuz ondo frijitu. Langostinoak zati txiki eta espinakak, juliana erara nahastuz beste hiru minutu eduki. Ondoren, esnegaina botata, hau irakiten eduki eta gero espagetiak gehitu.

Dietarik egokiena

Mediterraneo itsasoaren inguruko lurraldeetako biztanleak euren bizimodua hobetzen saiatu dira aspalditik. Egipto eta Grezia klasikotik gaur arte kultura eta zibilizazio ugari egon dira Mediterraneo inguruko lurraldeetan. Guztiek zeresan handia izan dute gaur egun lurralde horietan dauden pentsaera, arte eta elikadura ohituretan.

Dieta mediterranearra lurralde horietako klima, produktu eta elikadura beharren ondorioa da. Hiru dira dieta horren osagai nagusiak: garia, oliba eta mahatsa. Azken urteotan aditu gehienek dieta hori gomendatzen dute, bihotzeko gaitasunak, gizentasuna, loditasuna eta diabetesa izateko arriskua murrizten duela

frogatua dagoelako.

Bost dira bete beharreko baldintzak, jateko era bat dieta mediterranearra kontsideratzeko:

- Jakiak oliba olioarekin prestatu.
- Lehenengo plateri bigarrenengoei baino lehentasun handiagoa eman.
- Lehenengo platerak irintsua izan behar du: lekari, arroz, pasta eta barazki nahiz barazkiekin prestatutako gisatuak (haragirik gabe).
- Ondoren arraina, arrautzak edo haragia (txerria, oilaskoa eta txahala) jan. Neurrian betiere. Horiek barazkiekin nahasirik jan daitezke.
- Postrerako egokiena saioiko frutaren bat edo fruitu lehorrak jatea da.

Noizean behin almendra eta eztizko gozoak jan daitezke.

Eta dieta mediterranearraren ezaugarriak honako hauek dira:

- Bitamina eta mineral ugari duten elikagaiak jatea (fruta eta barazki freskoak).
- Zuntz askoko jakiak jatea (barazkiak, lekariak, fruta).
- Karbohidrato kopuru handia (ogia, pasta, arroza, patata, lekariak).
- Animalia jatorriko koipe gutxi.
- Landare jatorriko koipe kopuru handia (olibako olio eta fruitu lehorrak).
- Proteina kopuru egokia jatea (arraina, arrautzak, haragia, lekariak eta fruitu lehorrak).

AHOLKUA



Idola Noain Otegi
Dietetika eta elikadura
aholkularitza
Beasain



ZEGAMA
OKINDEGIA
*Eskuz egindako
ogi naturala*

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osña, Natxo dietetika. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muñoz, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**



“Saharatik gizatasuna eta borrokatzeko adorea ekarriko genituzke”

Bi hitzetan, zer gertatzen ari da Mendebaldeko Saharan?

Saharan ikaragarritzko injustizia gertatzen ari da, ez orain bakarrik, azken 30 urteetan baizik.

Zein da irtenbidea?

Gatazka honek amaiera posible bakarra du, soluzio politiko bat ematea. Hau da, Espainiak behingoz bere ardura hartzea potentzi kolonizatzaile, Nazio Batuek egin beharko luketen antzera eta Marokori gure eskubideak betetzera behartzea: eskubidez gurea den lurra itzuliz. Autodeterminazioa ospatuz. Sahararroi pentsatzen duguna adierazten uzten.

Zein dute arazorik larriena?

Arazoak tamalez ugariak dira bai errefuxiatu kanpalekuetan eta bai marokoarrek okupatutako zonatan. Baina arazo printzipalena eta larriena da, giza-eskubideen urraketa; herri baten aurka eramandako errepresio bortitza; askatasun gabezia; gatazka hau 30 urtez luzatu da eta hori ezin dela hala nola jasan. Nahikoa da!

Hemendik zertan edo nola lagundu dezakegu?

Euskal Herritik modu askotan laguntzen da; umeak ekarri, janari bilkuran, zenbait proiektu bertan gauzatzen,...baina une honetan eta azken gertakariak ikusita hemen eta toki guztietan egin beharrekoa da boterean daudenei presio latza egitea ea honi behingoz amaiera bat ematen zaion. Boterea herriarena da eta behar den lekuan, behar den moduan eta behar den momentuan (orain) presio hori era egokian eginez gero euskal herritarrek laguntza handia gauzatu dezakete.

Euskaldun ala saharar, zer sentitzen zarete?

Bi tokitako odola dugu, eta bi tokietako kultura, tradizioak, gatazkak,...ezagutzen eta bizitzen ditugu. Beraz ezin dugu diferentziarik egin.

Bi herrien artean parekotasunik ba al dago?

Bai Mendebaldeko Saharan zein Euskadin, gatazka bat dago. Zenbait gauza dituzte amankomunean eta beste ba-

tzuetan ezberdinak dira; hala ere bitxia da bietan Espainia eta Frantzia tarte egotea...

Zer eramango zenukete Euskal Herritik?

Euskal Herritik solidaritatea eramango nuke nire maletetan; ezinegona gorputzean, iristean beraiekin bukaeraraino egongo den herri bat dagoela esango diedalako. Euskaldunen irria eramango nieke patriketan; eta nola ez, laguntasuna.

Zer ekarriko zenukete Saharatik?

Saharatik gizatasuna eta borrokatzeko adorea ekarriko genituzke. Ospitalitatea. Herri baten batasun izpiritua; ez baikoitza bere zilbarrera begira egotea, askok egiten duten bezala.

Euskaldunen bertute bat eta sahararren beste bat:

Euskaldunak oso langileak eta fidatzeko jendea dela esan ohi da. Sahararren bertute bat borondatea eta gogortasuna, baina baita ere umore ona, egoera txarrenen aurrean ere irribarre bat sumatzen da.

Zeren beldur zarete?

Orokorren mundua nora bideratzen ari den beldur handia ematen du. Eta are beldur gehiago ematen digu Saharako gatazkak merezi duen amaiera ez izatea.

Zerk pozten zaituzte?

Ikustea 30 urte eta gero jendeak oraindik gogor borrokatzen duela, bai sahararrak zein atzerritarrak. Baina ez dugu ahaztu behar hitzak haizeak eramaten dituela eta guk teorikoki bidezkoa den independentzi hori benetan gauzatzea nahi dugula.

Amets bat:

Saharako independentzi eguna gertu sumatzea, eta egun hori iristean denok elkarrekin hara joatea burua tente asko izanik. Bertako itsasoko aparrean murgildu, izarrez betetako zerura begiratu, te kikara bat edan haizeak aurpegia lantantzen digun bitartean; eta malko bat isuri bidean geratu diren burkideengatik...

Gora Sahara askatuta! Gora Fronte Polisario!

Garsabi: Gipuzkoako arkume salmenta eta bilketa

*35 artzainen
arkumeak enkantean
jarri dira.
Arabako Unzaluk
erosi ditu*

Goierriko eta Gipuzkoako 35 elkartu eta 2005-2006 denboraldiko arkumeak enkantean jarri dituzte. Azaroaren 2an Ordizian egin zen enkantean edo subastan, Arabako Unzaluk eskaini zituen preziorik eta baldintzarik onenak. Era honetan, urte amaiera

bitartean, 4,50 eurotan salduko dute arkumea artzainek; Errege astean 4 euroan eta handik maiatzera bitartean, 3,10 eurotan. Guztia, artzainek osatutako Garsabi elkarteak bideratu du. Jabier Jauregi ataundarra da bertako koordinatzailea.



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

**Aita Urdaneta
ORDIZIA
943 88 72 76**

Zer da Garsabi?

Gipuzkoako Arkume Salmenta eta Bilketa. Goierriko Artzain Taldea bezala sortu zen 2003. urtean, 15 artzainekin. 2004. urtean taldea asko hazi zen eta Garsabi sortu zen, 28 artzainekin. Jaurlaritzako dirulaguntza batzuk lortu ahal izateko elkarte sortu behar zen eta.

Zergatik sortu zen Goierriko Artzain Taldea eta ondoren Garsabi? Zein da helburua?

Artzainek lehen denbora gehiago izaten zuten asteazkenetan Ordiziara joan eta arkumeak saltzeko, artaldeak txikiagoak zirelako eta ikuiluan ere ez zen hainbeste lan egiten ardiekin. Baina gaur egun gero eta denbora gutxiago daukate eta Goierriko Artzain Taldearen helburua zen, arkumeak etxetik bidaltzea hiltzera, ahal zen preziorik onenean. Honela, arkumeak zenbatu eta arkumearen haragiaren munduan ibiltzen ziren komertzialei eskaini zitzaizkien. Lehenengo urtean enkantea edo subasta egin zen. Bigarren urtean ez zen enkanterik egin, zuzenean, aurreko urtekoari eman zitzaion, Arabako bati.

Baina abenduaren 31n, Jaurlaritzak sortutako Gure Okelaren barruan sartu zela esanez deitu zidan. Ez zitzaidala batere ondo iruditzen esan nion, guk berarekin genuela konpromisoa eta. Ezertan ez zela aldatuko esan zigun, baina ordainketetan atzeratu egin ziren.

Aurten, subasta egin da, azaroaren 2an, Ordizian. Arabako Unzaluri ematea erabaki da.

Urtetik urtera, gero eta artzain gehiago dago elkarteetan. Jendea gustura dagoenaren seinale...

Bai, nik uste dut gustura dagoela. Etxetik prezioa jakinda bidaltzea da garrantzitsua. Ordiziara 20 arkumerekin joanda, ez da jakiten



Arkumearen prezioak

Azaroaren 1etik abenduaren 15era arte	4,50
Gabon astea, abenduaren 19etik 25era	4,50
Urte Zahar astea, abenduaren 27tik 31ra	4,50
Errege astea, urtarrilaren 1etik 6ra	4,00
Gainerako denboraldia	3,10

denak salduko diren, zenbatean salduko diren... Garsabik, segurtasuna ematen du. Prezioetan ere, nahiko ondo ordaintzen dela irudi-

tzen zait. Komertzialentzat era honetan lana egitea ere erosoa da. Ostiralerako badakite hurrengo asterako zenbat arkume dauzkaten.

Dena den, helburua ez da taldea oso handia egitea. Baizik eta, egiten diren pausoak kontuz ematea, taldean lana egitea zaila baita. Uste baina zailagoa da.

Arabako Unzaluk erosita, Goierriko arkumea, beraz Araban salduko da.

Arabian, eta Arabatik kanpo ere bai. Batez ere, Burgos aldean. Burgos aldean ohitura handia egon behar du. Hemen, berriaz, arkumea jateko ohitura asko galdu da. Orain Gabonetan jaten da eta kitto. Gabonetarako bi asteetarako bi mila arkumetik gora egongo dira eta horiekin ez dago arazorik.

Azarotik maiatzera prezio berdinean saltzen al duzue?

Guk bost prezio eskatzen ditugu, data ezberdinetan. Azarotik abenduaren erdial-

7.514 arkume eta 1.063 ardi

2003-2004 denboraldian Goierriko 15 artzainek osatu zuten Goierriko Artzain Taldea. 3.500 arkume merkaturatu ziren, azarotik maiatzera bitartean.

2004-2005. denboraldian, 28 artzainetara igo zen kopurua eta Garsabi, Gipuzkoako Arkume Salmenta eta Bilketa elkarte sortu zen. 7.514 arkume saldu ziren. Iazko denboraldian, ardiak saltzen ere hasi ziren. 1.063 buru saldu ziren.

Aurtengo denboraldian, 2005-2006 35 artzain biltzen dira Garsabin. 35 artzainetatik 19 dira Goierrikoak: Itsasondoko 1, Ataungo 5, Lazkaoko 1, Zegamako 4, Zeraingo 2, Mutiloko 1, Olaberriko 2 eta Zaldibiako 3. Gainerakoak, Oiartzun, Errearteria, Oñati, Urnieta, Hernani, Orea, Berastegi, Amasa, Errezil, Beizama, Alegi, Azpeiti eta Irungoak.

Garsabik,
segurtasuna
ematen die
artzainei.
Prezioetan ere,
nahiko ondo
ordaintzen dela
iruditzen zait.

dera, Gabon astea, Urte Zahar astea, Errege astea eta bestea, maiatzaren amaiera artekoa. Aurten, urte bukaera arteko prezioa berdina da, 4,50 euro. Iaz, Gabon asteen igo egin zen eta Urte Zahar asteen, berriz, dezentte jaitsi zen.

Denboraldia beraz, 7 hilabeteen luzatzen da. Batzuk dagoeneko hasi dira arkumeak saltzen, beste batzuk abenduan hasiko dira ume egiten. Hori, bakoitzaren, artaldearekin lan egiteko sistemaren arabera izaten da. Aralar aldeko artzain gehienei, orain ari zaizkie jaiotzen. Urbia eta Zegama aldekoiei berriz, beranduxeago hasten zaie. Aralarren beti lehenago jaio izan dira arkumeak. Nahia- go izaten dutelako udazkenean mendian gehiago egon eta udaberrian mendian gazta gehiago egin...

Bilketak noiz egiten dituzue?

Artzainek ostiraletan deitzen didate, zenbat arkume izango diren esateko. Horren arabera bilketa antolatzen dut. Iaz bost bilketetan elurra tokatu zitzaigun. Biltzea asko kostatzen da, Baserri bide asko eta aldapa ugari baitago... Iaz 34 bilketa egin ziren, batzaz beste, 12 etxe. Astean bilketa bat



“Artzain gazte asko dago”

Nekazaritzara gero eta gazte gehiago hurbiltzen dela esaten bada ere, artzaintzan ez da horrelakorik gertatzen, Jabier Jauregik adierazi digunez.

Gazteak artzaintzara inguratzen dira, beraz.

Artzain gazte asko dago. Aralarako artzainen urteen batzaz bestekoa 40 urtekoa izango da. 20-21 urteko artzainak ere badaude. Esne-behiak behera doazen bezala, artzaintza nahikoa batzaz-besteko onean. Zergatik? Gaztak daukan izen horrekin, lan asko eginda, nahikoa ondo ibiltzen da. Artzainak, deskantsurako denbora izaten du uda partean. Esne-behietan urte guztian lana egin behar da.

Artzain Eskolan ikasitakoak al dira gazteak?

Oso gutxi. Ezer gabe, artzain hastea oso zaila da. Baserria eta lursailak aurkitu behar dituzu, eta asko balio dute horiek. Azken batean, artaldea erostea da merkeena. Ikuilu bat egitea diru asko kostatzen da. Lurrak ere behar dira.

Artzain batzuen seme-alabek ez dute jarraitzen eta ona izango litzateke, oso denbora gutxi barru hutsik geldituko diren ikuiluetan gazteak sartzea.

Gazteek elkartzeko joera handiagoa al daukate?

Bai, gehienak bai. Baina artzainak bultzatu egin behar dira. Urtero eskurtsioa antolatzen dugu, mendi elkarteak ere elkartzeko guneak dira, Zaldibiako Ardi

eguna... giroa sortu behar da.

Momentu honetan, artzainen arazorik handiena zein da?

Lur galera. 23 urte daramazkit artzainen munduan eta ni ezagututa nago, neguan, ardiari, pentsurik ematen ez zienak. Gaur egun artzain asko daude, 8 hilabeteen, ardiari pentsua ematen dienak. Beraz, elikadurako kostuak handiak dira. Aldaketa handia egon da. Beste kontu bat ere bai. Aizkorri azpia garbia zen eta Urbitik jaisten ziren artaldeak han egoten ziren 15 bat egunez, gaztainak, ezkurak eta abar jaten, basoak garbiak egoten baitziren. Hori galdu egin da, batetik basoa zikindu delako eta bestetik artaldeak hazi egin direlako.

Idiazabal Jatorrizko Izendapenarekin, gazta ondo saltzen dela dirudi. Arkumearena ere bideratzen ari zarete. Esnearen egoera zein da?

Zentralari saltzen zaio gehiena. Prezio bajua da. Orain dela 2-3 urte, Tolosalde-tik Zegamaraino bitarteko 600.000 mila litro esne eraman ziren zentralera Idiazabal gazta egiteko. Horiek, 100 tona gazta dira.

Idiazabalek lan handia egin du kontsumitzaileen kontzientziazioan. Jendea ez dago prest labeldun arkumea gehiago ordaintzeko, bertakoa delako. Gaztarekin ez da horrelakorik gertatzen, Idiazabalek lan asko egin du eta jendeak erosi egiten du. Arkumean ez dago kontzientzia hori.

eta Gabonetan, gehiago, as-
tebetean 1.230 arkume atera
baigenituen.

**Sistema honekin nor ate-
ratzen da irabazten? Ar-
tzaina, harakina ala kon-
tsumitzailea?**

Artzaina. Geroz eta gehiago
gabiltza elkarrekin lan egin
nahian. Aralarren, Aizkorren
eta Urbian badaude elkar-
ak... Gauzak egiteko elkartu
egin behar gara. Ganaduzalea
beti bakarrik dabilen bitxo
arraro bat bezala ikusi
izan da. Gizarteari azaldu
behar zaio ganaduzaleak el-
kartuta daudela eta ez dire-
la bitxo arraroak. Baizik eta
elkarrekin, lan on bat egiten
ari direla. Ez da bakarrik ar-
kumeak dituztela, baizik eta
arkumearen atzetik gauza
asko daude. Hemengo zelaia
k eta mendiak hor dau-
de. Askok uste baino paper
handiagoa betetzen dute
ganaduzaleek. Gazta egite-
ko ardia behar da eta ardiak
zaintzeko artzainak behar
dira. Artzainik ez badago
gaztarik ez dago. Artzaina
da zaindu behar den perso-
na. Inguruan egiten diren
gazta azokak oso ondo dau-
de, baina beti lehenengo
pertsona artzaina da. Gaur
egun, ikuilu bat ezin da
nahi den lekuan egin. Edo
adibidez, Olaberria beti ba-
serri herria izan da eta orain
egin dituzten txaletetara jo-
andakoak keiatu egiten di-
ra, artaldeak etxe aurretik pa-

satu eta simaurra uzten du-
telako. Gizartea gero eta
egoistagoa ari da bihurtzen.

**Ordiziako azokan arku-
meak saltzen jarraitzen al
dute?**

Bai, baina nik uste Ordizia-
ra joaten den jendea, ar-
tzantzatik bizi ez den jen-
dea dela. Terrenoak garbi
edukitzearen 50 bat ardi
erosi eta arkumeak saltzera
joaten direnak. 8etarako la-
nera joateko, presaka joaten
dira saltzera, beraz, askotan
gaizki saltzen dute.

**Ordizian haserre egongo
al dira?**

Baina errealitatea hori da.
Agian udaletxearen gogoia
ona da, subasta han man-
tentzearena, baina egoerak
aldatu egiten dira.

**Arkumearen kalitatean
ere irabaziko da zuzene-
ko bilketarekin.**

Arkumearen kalitatea beti
ona izan da hemen. Baina
hori bai, arkumeak zenbat
eta denbora gutxiago pasa-
tu kamioian eta zenbat eta
lehenago hil, hobe.

Esnea edan eta ikuiluan
dagoen arkumea nahi iza-
ten da, jolasean ibilitakoen
haragia gorrixkagoa izaten
baita. Artzainak ez dira ar-
tzain joaten dirua egiteaga-
tik, gustatzen zaiolako bai-
zik. Animaliekin lana egitea
gustatzen zaio eta elikadura
naturala ematen zaio, ani-
maliak ondo zaintzea nahi
duelako.



Jabier Jauregi

Ataundarrak gertu-gertutik ezagutzen du artzaintzaren
mundua. 23 urte daramatza era batera edo bestera, ar-
tzainen interesak defenditzen. Erakunde eta Manko-
munitateekin bitartekari lana egin ohi izan du.
“2000an koordinatzailea behar zen eta ni hasi nintzen.
Orduan sortu zen Mendiko Artzaintza Lan Taldea: Di-
putazioa, Mankomunitatea, sindikatua, elkarte profe-
sionalak eta artzain, behi eta behor zaleen ordezkariak
biltzen ziren. Nahiko mahai osoa zen. Kontsultiboa
zen baina erabakiak hartzeko ahalmena ere bazuen.
2003. urtean legegintzaldia bukatu zenean, EAJ sartu
zen eta Mendiko Artzaintza Lan taldearekin ez zuen
kontaktzen. Mahaia kendu zuten eta finantzazioa ere
bai. Sektorearen barruan ikusten zen mahai hori be-
harrezkoa zela nahiz eta Diputazioarekin harremanak
moztuta gelditu. Sektoreak hizketarako lekua behar
zuela ikusi zen eta ni proposatu nintzen. Lurgintza ko-
operatiba, EHNE eta ELERen artean ordaintzen dute ni-
re lana. Berriz hasi gara Diputazioarekin harreman-
tan, Zaldibiako Udalarari esker. Ganadu eta larreen
gaiez hitz egiten batzorde bat sortu dute, Ataungo,
Zaldibiako eta Amezketako udalak ere parte direla”,
zehaztu du.

Gazta egiteko ardia behar da eta
ardiak zaintzeko artzainak behar dira.
Artzainik ez badago gaztarik ez dago.
Artzaina da zaindu beharreko pertsona.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...

era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Asmube, emakumeen elkargunea



15 urte bete ditu Beasaingo Emakume Elkarteak

Beasaingo emakumeen elkargunea eta topalekua izateko sortu zen Asmube elkarteak, 1990. urtean. Aisialdia, formakuntza... oinarri hartuta,

emakumeen berdintasunaren alde ari da lanean Asmube, Beasaingo Emakumeen Elkarteak. 15. urteurreneko ospakizunetan murgilduta daude Asmubekoak.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

Beasaingo emakumeak elkartzeko gune izateko helburuarekin sortu zen Asmube, Beasaingo Emakumeen Elkarte. 15 urte egin behar dira atzera bere sorrera eza-gutzeko. "Udaletxean emakumezkoen harremanen inguruko hitzaldiak eman zituzten eta Beasaingo emakume dezente elkartzen zen bertan. Hitzaldiak amaitutakoan, taldetxo bat gelditzen zen beti, eta emakumezko-entzako soilik izango zen elkartea bat sortzea ideia ona izango litzatekeela ikusi zen. 20-25 emakume elkartu eta ideia garatzen hasi ziren", gogoratu dute Asmubekoek. Udaletxean lokala eskatu, estatutuak osatu eta elkarte sortu ondoren, berehala hasi ziren, ekintzak antolatzen.

Emakumeen elkargunea

Lehenengo urte haietako bazkide gehienak, etxean lan egiten zuten emakumeak ziren. Denborarekin, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak ere gerturatu joan dira Asmubera. Momentu honetan, 40 eta 60 urte bitarteko emakumeak daudela esan liteke.

Hasiera batean, batez ere, aisialdiari begira hasi ziren lanean. Pixkanaka formakuntzak ere tarte handia izan du.

Dena den, beti argi izan du eginkizun bat Asmubek: emakumearen berdintasunaren alde lan egitea. "Ha-



Beasaingo emakumeen elkargunea eskaintzen die Asmubek. "Bakoitza bere arrazoiengatik joango da. Batzuk, denbora libre bat betetzera datoz, beste batzuk formakuntzari begira, beste batzuk beste emakume batzuekin egoteko...", diote Asmubekoek.

sieran, aldarrikapen hori garbi egin gabe, nahikoa aurrerapauso izan baitzen, emakumeak elkartzeko lekua bera lortzea", diote Asmubekoek. "Lehenengo afa-

riak izugarriak izan ziren. Zenbait emakumerentzat, lehenengo aldia zen gizonik gabe afaltzera zihoazela. Ixileko lana egiten da, emakumearen berdintasunaren al-

Lehenengo afariak izugarriak izan ziren. Zenbait emakumerentzat, lehenengo aldia zen senarrik gabe afaltzera zihoazela.

de, emakumeak ere kontzientzia har dezan, gizonetzkoen eskubide berberak dituela", gaineratu dute.

Garaiak ere aldatzen ari dira eta horren adibide da ondorengo datu hau: "Hasieran Asmubera joate hutsa bera ere, erradikala izatea zen. Gaur egun, kontzientzia gehiago dago. Dena den, oraindik ere Asmubera datozen emakume batzuk arazoak izaten dituzte etxean. Beste batzuk, hori bai, senarraren babes osoarekin etortzen dira", zehaztu dute.

Parte hartze handia

Ekintza ugari antolatzen dituzte Asmuben, bai elkarte-ko bazkideentzat, bai gainerakoentzat ere. Hori bai, lehenetasuna, elkarte-ko bazkideek edukitzen dute.

Ikastaroak, hitzaldiak, psikologia jardunaldiak... "Informatika ezusteko polita izan zen: ia idazteko makinari ikutu ere ez dugunok ordenagailuan moldatzen garela ikustea. Oinarrizko programetan eta interneten moldatzen gara", diote. Horrez gain, joga, hari lanak, eskulanak, Pilates... "Momentu honetan, Pilates du arrakastatsuen. Jogak ere beti izaten du".

Elkarte osasuntsu dago eta emakumeen parte hartzea handia da. 205 bazkide inguru dira Asmuben eta erdiak baino gehiagok, ekintza ezberdinetan parte hartzen dute.



INSTALATZAILE OFIZIALA



Ilaza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Iñauti
Hertz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbik. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
943 88 46 28

Gazteei deia

40 eta 60 urte bitarteko emakumezkoak dira Asmubeko kide. Dena den, kezkatuta ere badaude elkarteak, gazteak ez baitira elkartera gerturatzen. "Ez dakigu dena oso lortua daukaten... harritu egiten gaitu". Beraz, gazteei dei berezia, egiten die, belaunaldi berrien ideiak eta ekarpenak behar-beharrezkoak baitituzte.

Elkartearen zuzendaritza batzordea berritzea gehien kostatzen zaien eginkizunetarikoa bat Asmubarentzat. "Bi urtean behin juntaren zati bat berritzea litzateke egokiena, ideia berriak eta freskotasuna emateko elkarteari baina oso zaila izaten da. Beste elkarteek ere arazo berdina daukate".

Harreman ona

Inguruko emakume talde edo elkartekoein harremanetan daude Asmubekoak. Proiektuak ere badituzte, tartean, elkarte arteko sarea osatzea.

Emakunderekin ere harreman zuzena dute beasaindarrek. Dirulaguntza jasotzeaz gain, informazio asko bideratzen baitaie bertatik.

Beasaingo Udaletxeko Emakume sailaren babes osoa ere badu Asmubek. Oriamendi kalean duten lokala ere, Udaletxearena da.



XV. urteurreneko ekitaldiak

Azaroaren 18tik 27ra:

Tailerretan egindako marrazketa oleo, eskulan eta patchwork lanen erakusketa, Usurbe Antzokian.

Azaroak 21, astelehena:

18:30ean: Bazkide eta agintarien, luncha.

Azaroak 22, asteartea:

18:00etan: Izaskun Moyua, Emakundeko zuzendariaren hitzaldia, Udaletxeko Batzar-aretoa: 'Gobernuaren konprometua emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren inguruan'.

Azaroak 23, asteazkena:

18:30ean: Beasaingo emakumeekin mahai-ingurua, Udaletxeko Batzar Aretoa: Ana Asla (Emakumeen arloko zinegotzia),

Maite Erauskin (Goierrri Lanbide Eskolako irakaslea), Nerea Garmendia (artista), Mari Carmen Bustunduy (Zahar Etxeko lehen-dakaria), Amaia Godinez (industria arloko langilea), Aintzane Bolinaga (kazetaria), Tere Irastorza (idazlea) eta Pilar Alzuri (argazkilaria). Moderatzailea: Idurre Eskisabel kazetaria.

Azaroak 24, osteguna:

17:30ean: Tango Teatro taldearen 'Spok' antzezlan, Osinbeltz kafetegian.

Azaroak 25, ostirala:

20:00etan: Konzentrazioa, emakumearen aurkako indarkeriaren Nazioarteko Eguna dela eta, Loinazko San Martin plazan. Ondoren, Asmubeko batzordetik pasa diren bazkideekin, afaria.



Iturgintza - Berogintza - Gasa

Tel. - faxa:
943 88 43 87
676 178 488
Ibarguren
baserria
ZALDIBIA



Jose Agustín Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net




ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

Landare-hesiak

*Desagertzen ari dira eta ardura gizarteratzea da
Goimenen helburua*



Bertako landareen bioaniztasunaren desagertzeaz kezktuta, Goimen Elkarteak, landare-hesiak jartzera bultzatu nahi ditu goierritarrak.

Izan ere, landare-hesiek sortzen dituzten onurak, handiak baitira. Goimeneko Manex Aranburuk, hainbat gogoeta egitera bultzatu nahi ditu goierritarrak.


BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA


SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

Zein funtzio bete izan du te historian landare-hesiak?

Garai batean otargintzan, gozogintzan, sendabelar bezala, terrenoak egonkortzeko, itzala izateko, haizearen sarrerak ekiditeko, forraje bezala... erabiltzen ziren.

Zergatik joan dira desagertzen?

Adibide asko daude. Adibidez, Idiazabaldik Segurarako errepidea zabaldu egin da, Etxegarate bikoiztu egin da, Zumarragara arte doan bidea ere zabaldu egin da... Desmonteetan landaretza berririk ez da ikusten. Gehienez ere belar hazia botatzen dute. Nekez ikusten da poliki-poliki datorren landarerik.

Errekatan kanalizazioak sartzen ari dira eta kanalizazioekin, erreka inguruko ekosistema guztia, eskolerrarekin jartzen du, baina landareak bere lekua bilatzen dute, errekan ur gutxiago doanean. Baina askotan, landareen funtzio naturala, errekaen abiadura geldotzea da, baina giza-kiaren ikuspegitik, segurtasunari begira, uholdeak ekiditeko, landareak moztu egiten dira. Haltzak, pikuondoak, urkiak, lizarra, intxaurreondoak... Momentu batean erreka bota ditzake eta presa natural bat sortu. Erreketan, batez ere herrietan, landare gutxiago dago eta hormigoie gehiago.

Agintarien artean ba al dago bertako landareak erabiltzearen sentsibilizaziorik?

Obra berrietan, sentsibilitate berria sortu behar da, exijitu, inpaktu paisajistikoa gutxitzeari begira, azpiegi-



Landare-hesia edo eskardurea

Landare-hesiak, zuhaitz, zuhaiska edo bien arteko nahasketaz osaturikoak dira eta belardi, soro eta basoan artean daude. Gehienetan lerro estu eta luzeak izan ohi dira. Beren altuera ez da 5-10 metrotik goragokoa izaten eta gehienetan bertako espeziekin osatuak izaten dira. Askotan, lursailak itxi eta mugatzeko erabiltzen dira.

turak integratuago geratu daitezzen, bertako landareak erabiltzea. Bertako bioaniztasuna ahalbidetzeko eta integratu eta paisaia eta giza-kiaren psikologian eragin positiboa sartzeko.

Nekazariak nola animatuko zenituzke landare-hesiak jartzera?

Nekazaritza aldetik abantaila asko ditu, nahiz eta nekazariak hori ez ikusi eta eskulan karga bat bezala ikusi. Baina onurak asko ditu: lubiziak ekiditeko, azpiegiturak integratzeko, itzala ganadua hobeto egiteko, janari osagaia da...

Gero eta familia bakarreko etxe gehiago dago. Zer esango zenieke?

Indibidualtasuna bilatzen da lehenengo, hazkuntza azkarreko landareak aldatzen dira, ahalik eta itxien,

Abantailak eta onurak

Landare-hesiak edukitzeak, mantentzeak edota ezartzeak ekar edo izan ditzakeen abantaila eta onurak ondokoak dira:

- Aziendaren osasun eta ongizatean duten eragina. Itzala, haizearengandik babestu, errape mina eta bestelako infekzioak nekezago azaltzen dira. Beren adaska eta fruituak dietaren osagarri garrantzitsuak dira, zenbait bitamina eta mineral bereganatzeko aukera ematen dute.
- Landare-hesiek baserriarrentzat erabilgarriak diren hainbat produktu eskaintzen dituzte: zura, egurra, erlezaintzako produktuak, fruituak eta sendabelarrak.
- Lurraren egonkortasuna, lubizi posibleak ekidituz.
- Zenbait animalia eta landareen babesgune.
- Landa-guneetan aurki daitezkeen elementu berri desberdinak integratzen laguntzen dute (biltegiak, bainerak, ikuilu berriak...).
- Neurri handi batean, kutsadura ebitatzen laguntzen dute.


Zunzunegi
Oinetakoak
Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
● Test-ak, Frogak ● Tailerrak

Liburua

Goimenen ekimenez bertako landareen ezaugarriak biltzen dituen liburua salgai dago 10 eurotan. Landare bakoitza noiz landatu, noiz kimatu, zertarako erabili, non erabili... azaltzen dira. Liburuak: Goimenen, Lizarrusti Parke Etxean, Ordiziako Delikatuz zentroan, Segurako Ardixarran, Zeraingo Mandioan eta Zegamako Anduetzako egur museoan.



kanpotik isolatzeko. Normalean espezie exotikoak erabiltzen dira. Hor ere bertako landaredia bultzatzeko aukera izango litzateke.

Adibide bat jartzekotan, zer gomendatuko zenieke familiarreko etxeetako?

Hazkuntza azkarreko espezieak aukeratu beharko dituzte. Hosto iraunkorrekoak. Erramua, txorbeltza, hagina, gorostia... Gero ikusi behar da, arantzarik baduten edo ez, haurrak inguruan ibili behar baldin badira. Gorostiaren eta haginaren fruituak pozoitsuak dira eta hori ere kontuan hartu behar da. Arbusto arrunta, artea... Mozketa aguanta-tzen dutenak. Ereinotza. Gurbitz. Tartekatuz ere joan daiteke.

Dirulaguntzak eskaintzen dituzue landare-hesiak jartzeko.

Bai, metro linealeko 2,60 euro. Gutxienez, 50 metroko itxitura egin beharko da. Baso txikiak ere lagutzeko

prest gaude. Dirulaguntza jasotzeko azken aukera dago orain. Foiletoak, Eskualdeko Bulegoan eta udal-txeetan eskura daitezke. Informazio gehiago Goimenen eskura daiteke.

Orain da sasoi landareak aldatzeko. Urte bukaerarako eskaera egin behar da, urtarril edo otsaila bitartean, aldaketak egiteko.

Non eskuratu daitezke bertako landareak?

Egun ez dago mintegirik, horrelako landareak hazten dituen, eta hauek dira bultzatu beharrekoak. Administrazioak eredia eman behar du. Bizkaian eta Nafarroan, hasita daude, bertako landareak ekoizten. Bi mintegi daude. Dena den, aukeran aurkitzen ez badira, norbere terrenoetan begiratu bat eman eta bertatik har litezke, negu aldean.

Beste aholku bat: ahal dela, landarea, aldatu behar den baino gorago sortua izatea. Adibidez, kostaldeko gereziondoak Ataunen 400



Landare-hesi gomendagarria

✓ Helburu ezberdinak eduki ditzake landare-hesi batek, nahiz eta hesi horrek beste helburu asko bete. Lehentasuna, helburu bati eman behar zaio.

✓ Itxiturak egitekoa bada, normalean, jendea ez pasatzeko leku bat edo ganaduak gaudituko ez lukeen leku bat izan beharko luke. Beraz, arantzadunak jarri beharko dira. Arantza beltza edo elorri zuria esaterako. Bi horiekin itxitura egiten da, baina aldi berean beste funtzio batzuk ere betetzen dira: errepideak integratu, elikadura osagarria ahalbidetzea ganaduari, patxarana egiteko fruitua eskuratu, edo neguari begira, espezi anitzei, fruitua eman. Landare batzuk edozein lekutan ondo ateratzen dira. Hurritza eta elorri zuria esaterako.

✓ Itxitura nondik egingo den pentsatu behar da lehenengo. Lursailaren forma naturala errespetatzea da egokiena.

✓ Inguruan zer dagoen ikustea garrantzitsua da. Kilometro baten bueltan dagoena jarri daiteke gidatzeko.

metrotik gorako baserri batean landatzea ez litzateke egokia izango. Seguruenik, lehenengo izotzarekin fruituak lehortuko zaizkio.

Kultura, toponimia... bioaniztasunarekin batera galtzen ari dela diozu.

Lekukotasuna adierazten zuten garai batean zuhaitzek. Leku bati izena emateko ezaugarri bat bilatzen

zen. Baserri bat, Harizti Zabal izan liteke, Gaztañadi, Lizardi, Altzaga... Gaur egun ea nork bilatzen duen lizardi bat! Zumarraga, zumarretik dator. Zumarrak desagertu egin dira, gaitzak jota. Zumalakarra ere asko egongo zen landarea izango zen, Zumalakarregi abizena hortik dator. Altzaga ere, haltzatic etorriko dira.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak



KARROZERIA

N-1 errepidea

lurre auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 43 01

Unai San Vicente albaitaria

Nola sortu zen ideia?

Zaragozako Unibertsitatean ikasketak bukatu ondoren, animalien elikadurari buruzko ikerketa bat egin nuen Albaitaritza Fakultateko Animaliaren Elikaduraren Sailean. Horren ondotik, hainbat aldizkari espezializatuetan hainbat artikulua argitaratu nituen eta Frantziako poster bat ere aurkeztu nuen.

Handik aurrera eta 10 urtez, Frantziako eta Ingalaterrako Albaitaritza Klinikak ezberdinetan aritu naiz lanean, nire formazioa aberastuz eta esperientzia handia eskuratuz.

Eta hortik eskualdean nire klinika irekitzeko ideia. Beti erakarri nau neure enpresa sortzeak. Jakina, animalienenganako interesa gehitzeak eta eskualdean klinika gehiegi ez izateak bultzatu zuen nire erabakian.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzu?

Eskaintako zerbitzuaren kalitatean nabarmentzea helburu badut ere, nire ohiko edo noizbehinkako bezeroei irtenbiderik egokiena eskaini nahi diet. Medikuntza orokorra, kirurgia eta traumatologia, erradiologia, elektrokardiografia, laborategia, ile apaindegia eta abar eskainiko ditut. Etkez etxe-ko bisitak ere aukeran izango dira eskatzen dutenentzat.

Era berean, animalien zainketarako eta entretenimendurako era guztietako produktuak ere salgai dauzkat; hala nola, parasitoen aurkako produktuak, elikagaiak, garbiketarako produktuak, pilotak, kateak...

Zeintzuk dira zure helburuak epe ertain eta luzera?



Guztien aurretik, animalien ongizatea bermatzea eta animalia jabeek niregan duten konfiantza sendotzea. Era honetan, etengabeko aurrerapen zientifikoak, sortzen diren patologia berriak eta teknologia berrien garapenak, baita ingurugiroare-

kiko errespetuak ere, etengabeko formaziora derrigortzen naute.

Bezeroei eta beraien jabeek kalitateko zerbitzua eman ahal izateko, albaitariok gure jakintza areagotzeko ardura daukagu gure bizitza profesional guztian.

albaitaritza klinika
Unai San Vicente

Labeaga 33B behea
Urretxu
Tel 943 03 63 04 (24 ord)
albaitaritzaklinika@usavak.net
www.usavak.net



Jostailuak nola aukeratu?

Etxeko txikienak jostailuen zain dauden bitartean, gurasoentzat, uste baino buruhauste handiagoa dakarren erorsketa da garaia da: jostailuena. Jostailuek balore ezberdinak lantzen dituzte eta adituek, gaur egun jartzen den baino arreta handiago eskatzen dute jostailuak erosterakoan, guztien gainetik, heziketak baitu lehentasuna. Gurasoak orientatzeko eta aholkuak emateko, Beasaingo Udalak hainbat ekimen egingo ditu.

Erakusketa eta hitzaldia

Beasaingo Txelotxe eta Berritsu ludotekek, gurasoak orientatzeko eta gidatzeko hitzaldia eta erakusketa antolatu ditu.

Hitzaldia, azaroaren 24an izango da, arratsaldeko 6,30etan, Berritsu ludotekek Loinazko San Martin plazan duen egoitzan. Egun horretan hasi eta azaroaren 26ra arte, berriz, jostailuen erakusketa egongo da, arratsaldeko, 6,30etatik 8etara.

Erakusketa berdina, Ezkiaga auzoko Txelotxe ludotekan ere ikusgai egongo da, azaroaren 24an eta 25ean, arratsaldeko 6etatik 7,30etara.

Euskal produktuen katalogoa

Horrekin batera, Beasaingo Udalak, Goiekirekin batera, euskal produktuen katalogoa banatuko du 16 urte bitarteko haurrak eta gazte txoak dauden etxe guztietan, postaz. Ipuinak, filmak,

jostailuak, liburuak, musika... jendeak euskaraz dagoena ezagutu dezan lortu nahi da. Adinka azalduko dira produktuak sailkatuta. Beasaingo Udaleko Ane Barandiaranek adierazi digunez, "merkatuan zenbaterainoko eskaintza dagoen ez dakite gurasoek".

Jostailuaren garrantzia

Beasaingo Berritsu ludotekako Maialen Hernandezek eta Udal Euskaltegiko Ane Barandiaranek, jostailuak eta jolasak duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute. "Jostailuen garrantzia handia da eta askotan gurasoak noraezean ibiltzen dira. Gurasoak jakin behar du, jostailu batek kontuan edukitzeko alderdi asko dauzkala. Jostailuek, pertsonen arteko harremanak bultzatzeko, beste batzutan irudimena lantzeko, beste batzutan berdintasunean hezteko... balio dute. Beste alderdi bat, hizkuntzarena da".



Gomendioak

Jolasak haurraren garapenerako ezinbestekoak direla esan daiteke; alde batetik bere burua eta ingurua eza-gutzeko aukera ematen diote eta bestetik, komunikaziorako eta sozializaziorako tresna garrantzitsuak dira. Jostailua berriz, jolasaren oinarritzko laguntzailea dela esan daiteke.

Jostailuak aukeratzeko eta erosterako orduan, irizpide hauek jarraitzea gomendatzen da.

1. Adina eta ahalmena: Jostailuak haurraren adin eta beharretara egokitu behar du; baita mugimendu ahalmenera eta ahalmene intelektual, afektibo eta soziale-tara ere. Bere beharrak asetu behar ditu (asmatzekoa, sortzekoa, bilatzekoa...). Egokiena, haurraren garapen dimentsio ezberdinak suspertuko dituzten jolas ezberdinak erostea.

2. Irudimena eta ekintza: Jostailuak parte hartzeko aukera eman behar dio haurrari, bere ikasketa prozesuan eraginkorra izan dadin.

3. Hainbat jostailuaren konbinaketa: Egitura sinplea duen jostailuak aukera emango dio umeari bere fantasia garatzeko, baina komenigarria da mota horretakoak jostailu sinbolikoen erabilerarekin tartekatzea.

4. Bakardadea eta elkarrekintza: Bakarka zein beste umekin aritzeko jostailuak izan behar dituzte. Bakarkako jolasak bere fantasia pertsonalak adierazteko aukera emango dio eta besteekin aritzen denean, komunikaziorako tresna izango da jostailua.

5. Rolak eta indarkeria: Sexu bereizketarik eta indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten ez duten jolasak dira egokienak.

 ARANDIA Garajea	N-1, z/g Iurre Auzoa
	OLABERRIA
LADA Ssang Yong	AUTOEN KONPONKETA
☎ 943 88 09 47	

Ikaskide irakaskuntza zerbitzuak Joan Iturralde, 5 solairuartera 943 160 120 Beasain	INGELERA ✓ Azterketa ofizialak ✓ Cambridge, Trinity College ✓ Talde txikiak ✓ Esperientzia zabala ikaskide@ikaskide.net www.ikaskide.net
--	--

Itsu-itsuan ez erosi, ondo pentsatu!

- Publizitateak ez dezala eraginik izan zuregan.
- Jostailuen ezaugarriak adierazten dizkigutenez, txartelak irakurri, bere erabilpen, seguritate eta zaintzea.
- Jostailua ordaindu aurretik behar bezala ibiltzen den ziurtatu.
- Erosketako txartela eta bermearena beti gorde.
- Itxura eta salneurriak konpara itzazu, jostailurik garestiena ez da jostailu onena izaten.
- Haurrak ez ditu jostailuak data zehatzetan jaso behar.
- Gabon oporraldia oso garai aproposa da haurrekin jolasteko, ez ezazue aukera galdu, telebistari oporrak eman eta beraiekin jolastu zaitezte.

Erosketa testa

Jostailu bat erosi aurretik, galdeketa hau egiozu zeure buruari. Galdera gehienetan baiezkoa ateratzen bada, jostailua egokia izango da.

Jostailuak eta jolasek, haurrari iraganari aurre egiten, egunerokoa ulertzen eta geroa gertatzen laguntzen diote.

(Faben, 1995)



- Jostailua egokia da haurraren adinarentzat.
- Behin eta berriz jolasteko gustatuko zaio.
- Ongi egina dago, iraupen handia izango du.
- Haurrak irudimena erabiliko du jolasterakoan.
- Haurra gustura sentituko da jolasterakoan, bere trebetasunak landuko ditu.
- Beste lagunekin elkarlanean jolasteko aukera eskaintzen du, zenbat kasuetan "denek irabaz dezakete".
- Beste pertsonengan konfiantza izaten lagunduko du, arraza, kultura... desberdinak errespetatuz.
- Indarkeri edo sexista ereduak ez errepikatzen lagunduko dio.
- Euskaraz jolastea ahalbideratzen du.

ainar etxe berria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

 **mazda**

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



Goierritarra
etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 15 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:
 Helbidea:
 Herria: Tfnoa:
 NAN:
 Kontu zenbakia (20 digitu):

Euskara ikastaroak etorkinentzat

Ordiziako Udalak, Euskaren Biziberritzeko Planaren barruan, etorkinentzako euskara ikastaro bereziak antolatu dituzte, AEK-n. Aisa, etorkinentzako programa berezia erabiltzen dute, irudiz lagundutako material berezia.

Abenduaren 20ra bitartean, 21 lagun ari dira euskara ikasten, bi taldetan banatuta. Batzuk, goizez eta besteak arratsalde. Guztiek ere, gogoia behintzat badute, nahiz eta zaila dela dioten. Batez ere, ahoskera egiten zaie zailena. Hizkuntzaren egitura bera ere bai.

Irakasleek diotenez, lanerako eta seme-alabei ulertzeko nahi omen dute euskara ikatea. "Lanerako derrigorrezkoa iruditzen zaie", diote.

Beraz, jarraian dituzue protagonistak. Era berean, gainerako etorkinak ere animatu nahi dituzte euskara ikastera.

Fabiana, argentina-rra. 6 hilabete daramazki eta alabei ulertu ahal izateko euskara ikasi nahi du. Zaila dela dio.

Fanny, ekuadortarra. Hiru urte eta erdiren ondoren, aurten hasi da euskara ikasten. Ez zaio hain zaila denik iruditzen.

Francia, ekuadortarra. Hasi berria da euskara



ikasten eta interesa jarriz gero, erraza dela dio.

Mirabela, errumania-rra. Urtebete darama Goierri eta gaztelera ikasi ondoren, orain euskara ikasten hasi da. Ezinezkoa ez, baina zaila dela uste du.

Tünde, errumania-rra. Honek ere urtebete darama Goierri eta gaztelera ikasi du lehenengo. Ikastolan dabilen haurarekin hitz

egiteko eta lana aurkitzeko garaian errazago delako hasi da euskaraz ikasten.

Geovanny, ekuadortarra. 6 urte daramazki eta goierritar batekin dago ez-konduta. Entzumena eta ulermena nahiko aurreratuak baditu ere, alabarekin euskaraz hitz egin nahi du. Batez ere hizkuntzaren egitura iruditzen zaio zailena. Etorkinentzako bereziki

prestatutako ikastaroa delako animatu da Geovanny euskaltegira joatea.

Mariana, argentina-rra. 4 urte daramatza gure artean eta entzunema nahiko aurreratu badu ere, lehenengo aldiz emango du izena euskaltegian. Zailtasunak ikusten baditu ere, nahikoa ondo ari omen da.

Caridad, cubatarra. Aurretik ere euskara ikasten ibilitakoa bada ere, lanagatik utzi beharrean izan zen. Dena den, asko aurreratu duelakoan dago, nahiz eta euskaltegiko euskara eta kaleko hizkera askotan bat ez datozen.

Lelia, cubatarra. 6 urte daramatza eta aurretik ere saiatu bazen ere, orain berriz saiatzea erabaki du. Komunikatzeko eta ulertzeko ikasi nahi du Leliak euskaraz.

Irina, errumania-rra. 2 urte daramazki gure artean eta euskara jakitea asko gustatuko litzaiokeela dio.

Mihaela, errumania-rra. 8 hilabete daramatza eta tabernan euskara asko entzun eta ikasten ari bada ere, euskaltegira etorri eta saiatzea erabaki du.

Mihaela, errumania-rra. 2 urte daramatza honek ere gure artean eta zaila, konplikatu iruditzen zaio euskara.

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

ASEPLAN

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

**DAGOENEO ABIAN DA #97. PROIEKTUA:
BEASAINGO ETA LEGAZPIKO
KIROL EREMUAK HANDITZEA.**

Inbertsioa: 2.100.000 euro

Igeriketa, Waterpolo, Futbola, Paddle, Tenisa, Saskibaloia, Eskubaloia... kirol guztia Golerri eta Urola Garai osorako. Proiektutik haratego dagoen proiektua. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doan errealitatea da. Lazkaoko eta Zumarragako zaharren egoltza berriak, Ordizako Sueskola, edo Beasain-Durango errepidea bezalaxe... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

Aparteko Inbertsio Plana.

Golerri ere bai.
Urola Garai ere bai.

Aparteko Inbertsio
plana 2004-2007



Plan extraordinario
de Inversiones 2004-2007



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

LURSAILAK

errentan eman

Lazkao erdian, herrigunetik aparte dagoen 175 m²ko lursail laukia eta laua alokatzen da. Ezin hobe baratzetan edo antzekoan jarduteko. 60 euro hilean (negozia daiteke). 630608227.

GARAJEAK

errentan eman

Beasaingo Igartza auzoan 35 m²ko garaje bikoitz itxia alokatzen da. 600329197.

IBILGAILUAK

salgai

Mercedes Vito 110 d salgai. 97. urtekoa. 646915961.

Peugeot 306 turbodiesel salgai. SS-AV. 4.800 euro, negoziazarriak. 652755704.

Bultaco Sherco motorra salgai. 290 cm³. 2002. urtekoa. Prezio onean. 3 hilabeteko garrantia. 690732704.

erosi

Vespa edo Lambretta motorra erosiko nuke, 60-70 hamarkadako. 645702110.

BESTELAKOAK

salgai

Egurra erretzeko burdinezko estufa salgai, Jotul marka du eta dekoratiboa ere bada. Bere lau hankekin edozein tokitan jartzeko modukoa. 639212937. 22:30etik 23:00etara deitu.

Igloo motako mendiko denda salgai. 2 personentzako. Egoera onean. Merkea, prezio negoziazarria. Aukeran, pertsona batentzako beste denda bat. 600895984. Sandra.

Bi polipasto salgai: 300 eta 500 kilokoak. Trifasikoak. Bata finkoa eta bestea mugikorra. Baita motore elektrikoak ere. 656723131.

President Jimmy irratia, 27 Mhz-koa salgai. 60 euro. 1/4ko antena, basea eta kablea opari. Beasaingo 117 posta kutxa. losu.

Hewlett Packar, HP 1741A osziloskopioa salgai. Sondarik gabe (0-100 Mhz). 100 euro. Beasaingo 117 posta kutxa. losu.

Ontzi garbigailu eta hozkailu industrialak salgai, altxairu herdoigaitzezkoak. 943163011.

LANA

eskaerak

Asteburuetarako zerbitzaria behar da Beasaingo taberna batean. 6-7 ordu. 616698236.

Pertsona euskalduna behar da, asteburuetan tabernan lan egiteko. 943160205.

Idiazabalen etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. 20:00etatik 22:00etara deitu. 652729883.

Trailerreko gidaria behar da. C+E gida-baimenarekin. 626109468.

Muntatzailea behar da sukaldoko altzariak muntatzeko. 649426712.

Akademiak irakasleak behar ditu ordezkapenatarako eta lan-poltsarako, gai desberdinetan adituak (ingelera, injeniaritza, matematika, kimika, fisika eta abar). Zuen kurrikulua mak helbide honetara bidal ditzaitezue: 61 posta kutxa, 20240 Ordizia.

eskaintzak

Erreformatan edo obretan lan egiteko prest dago 25 urteko mutila. Euskalduna eta arduratsua. Gidatzeko baimenarekin. 678471206. Gorka.

21 urte mutil lazkaotarra, tabernan esperientziaduna, lan bila ari da. 669072847.

Emakumezkoa, gida baimenarekin, lan egiteko prest dago, adinekoak zaintzen edo garbiketara. 678781985.

Paperak dituen gaztea edozein lanetan aritzeko prest dago. 617426339.

Irakasle tituluduna eta psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko, 6-12 urte bitarteko umeei Ataunen edo inguruetan. 650132272.

Emakumea prest dago adineko pertsonak gauzez zaintzeko, Ordizia eta Beasainen. Esperientziaduna. 616889923.

48 urteko emakume euskalduna prest dago arratsaldean, adineko pertsonak zaintzeko. 679973107.

ANIMALIAK

oparitzeko

3 hilabeteko txakurkume mestizoa opari. 619940982.

Katakumeak, oso mantsoak eta politak, oparitzen dira. 678449564.

salgai

Setter txakurra salgai, 8 urtekoa. Merke. 943160015.

14 ardi saltzen dira, beren kupoarekin. 943885102.

2 pottoka salgai, emeak. 680768079.

50 latxa ardi salgai, beraien kupoekin. 943801833.

5 ahuntz eta akerra salgai. 630621153.

Spagneul breton arrazako txakurkumeak salgai. Gurasoak oso onak ehizean. 667302980 - 676971795.

ZUZENKI

AHOLKULARITZA



Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Hirigoi, 7 LAZKAO



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

LAZKAON

DUPLEX-a

SALGAI

herri erdian
estreinatu gabea

652 775 741

Idiazabal

Carod-Rovira abenduaren 1ean

Ganbarako Tertulien barruan, abenduaren 1ean, Josep Lluís Carod-Rovira politikari kataluniarra izango da, Pilar-eneko ganbaran, iluntzeko 7,30etan. ERCko buruzagiak, Euskal Herriari buruz, Kataluniako Estatutu berriaz eta gai honen inguruan Madrilen izandako jarreraz hitz egingo du.

Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldiak

Datozen egunetarako, Herri Eskolaren 25. urteurrenari begira, bi ekitaldi daude aurreikusita.

Azaroak 18, ostirala:

17:00etan: Ludotekan, Joseba Ramirez ipuin kontalariak garai eta toki ezberdinetako istorioak kontatuko ditu, musika eta soinuak lagun.

Azaroak 19, larunbata:

21:00etan: Kantu afaria, Arretxe elkartearen. Abestiak bil-tzen dituen liburuxka banatuko da bertan.

Ordizia

Ardoaren azoka

Aste guztian zehar, ardoari buruzko hitzaldiak eta dastaketak egin ondoren, gaur, azaroak 18 eta bihar, azaroak 19, ardo azoka izango da Plaza Nagusian. Azokaren ordutegia honokoa da: ostiralean, 18:00etatik 21:00etara; larunbatean, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 21:30era. Araba Errioxako eta Nafarroako upategi edo bodega ezberdinen ardoak dastatzeko aukera izango da. Kalitatezko ardoak aurkeztea eta ezagutaraztea, upategiek egiten duten lanaren ekoizpena ezagutaraztea eta kontsumitzaileak kalitatezko produktuak estima ditzen eragitea dira Ardoaren astearen helburuak.

Ordizia txapeldun

Gaztak ere izango du bere tarte, bihar, azaroak 19. Ordiziako Gazta Txapeldunen XVIII. lehiaketa jokatu da, 11:30ean hasita. Hau da, azkeneko hamar urtetan, iraileko Ordiziako gazta txapelketa irabazi duten artzainen gaztak lehian izango dira. Salgai ere izango dira.

Gipuzkoako Ezti lehiaketa

Hirugarren produktu bat ere protagonista izango da: ez-tia. Lorebakarreko Gipuzkoako Ezti lehiaketa jokatu da, arratsaldeko 6etan.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako mintegiak

Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa? Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa, gure lehiakideen jarduerari buruzkoak, dauden dirulaguntzak eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure negozioarako mesedegarri izan daiteke.

Goierri

azaroak 22

ORDIZIA

Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia:

18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

euskadi

e-gipuzkoa

SPRI

Antolatzailea:

Miramon
Enpresa Digitala



Ormaiztegiko ikastolako ikasleak

Ormaiztegiko Ikastolako ikasleak dira honakoak. 1970eko hamarkadan ateratako argazkia da.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Joseba Peralto, Lierni Oiarzabal, Faustino Esnaola, Mikel Zumarraga, Lurdes Estensoro andereñoa, Jon Mikel Murua, Iñaki Amundarain eta Iñaki Perez de Albeniz.

Aurrean: Xabier Baztarrika, Edurne Zaldúa, Arantxa Lekue, Jose Ignazio Muguruza, Amaia Irizar, Gema Osinalde, Agustin Eloseggi, Jose Antonio Eloseggi eta Joxe Mari Elorza.

Ikaskide
 irakaskuntza zerbitzuak
 Joan Iturralde, 5
 solairuarte
 943 160 120
 Beasain
 ikaskide@ikaskide.net
 www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
 ✓ Gai eta maila guztiak
 ✓ Talde txikiak
UNIBERTSITATE MAILA
 ✓ Injinaritza
 ✓ Enpresaritza
 ✓ ...
INFORMATIKA
 ✓ Ikastaro berriak
 ✓ Ordenadore bat ikasleko


PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargakile zenbakia: E-2644
 RPS: 42001
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

berriz
 AMAYA ARZUAGA
 MIRIAN OCARIZ
 ISABEL MARANT
 PAUL & JOE
 HOSS
 MISS SIXTY
 BEASAIN

FRENCH CONNECTION
 DIESEL
 FOR ALL MANKIND
 ANTIK BATIK
 EARL JEANS
 SCOOTER
 DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

OKINDEGIA GARONA

K. Nagusia 35 BEASAIN
 ☎ 943 88 77 58
 ~~~~~  
**Eloseggi, 14 LAZKAO**  
 ☎ 943 88 72 79  
 ~~~~~  
Sta. Maria, 19 ORDIZIA
 ☎ 943 16 00 44

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGO A

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGO A



Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarri, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi**, **estetika** edota **zirugi mailan**.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT


HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)